

KAXARRANKA LEKEITIO_n



Pedro Urkidi Gorostiola, Arranegi-zabalean.

DANTZARIEN ZERRENDA

Fakundo Etxebarria eta Idoiaga. Lekeitio, 1855 urtean jaio zan goizeko zazpiretan, Bergara kalean, 8-1 eta 1934 ekainaren 5an il. Au izan zan, aurreko mendean **kaxa** gaiñean dantzan ikusi eben leen gizona.

Teodoro Urkiaga eta Iturraspe. Lekeitio, Narea kalea, 7-2. il zan 23 azaroa 1936. Onak bere mende asierako 1903 inguruan dantzatu omen eban.

KAXARRANKA BILBON

Dantzaria, **Teodoro Urkiaga eta Iturraspe**, 1903 Argazki au **Bilboko Iturribide** kaleko taberna batean egon zan eskegita. Dantzariaren alabak ikusi, eta bereala ezagutu eben argazkikoa: bere aita.

Familikoaek kopia bat eskuratu, eta beste bat udal artxibora ekarri dabe, oraintsu. Artxiboan ez da egon, orain arte, dantzariaren argazkirik.

Bilboko argazkilari batek egiña da, argazkian bertan ikusi daitekeenez, tokia ezin da identifikatu, baiña badirudi **Bilbo** dala. Publikoa dotore jantzia eta zuriz jantzia, barriz, **kaxa** eusten ebenak, oikoa ez dana, bestalde.

Eta zer egiten eben **Kaxarrankak** Bilbon 1903. urtean?

1903 apirilaren 22an **Begoñako Andra Maria** izendatu eben **Bizkaiko patro**i edo zaindari, Pontifizearen aginduz ondorioz, ainbat eta ainbat ospakizun antolatu eben Bizkaiko Foru Aldundiak irailarako, bai Bilbon bertan eta bai Bizkaiko beste erri batzuetan bere. Lekeitioko Udalak, adibidez, 1903ko irai- llaren 27an baimena emon eban udaleko musika bandari, **Begoñako Santutegira** erromesaldian joateko, beste erri batzuetako musika bandekin batera.

Galdera, baiña, auxe da: **Kaxarranka** bere orregaitik zegoen Bilbon? Baietz dirudi, baiña ez dogu oraindik ori esateko datu erabatekorik aurkitu.

Lekeitioko Udal Artxiboa



Zoilo Atxabal, 1930 Bilboko Euskalduna Frontoian.

Eusebio Azkarraga eta Erkiaga. Lekeitio, 1925ko azaroaren 16an il zan Ezpeleta kalean 29-3. Bere garaiko **dantzaririk entzutsuena** izan zan.

Zoilo Atxabal. Lekeitio jaio zan. Au izan zan 1930 urtean, **Bilboko Euskalduna Frontoian dantzatu** zuena.

Ignacio Prudencio Murelaga eta Anakabe. Lekeitio, 1886 abustuan 31 jaio zan.

Pedro Julian Erkiaga eta Bengoetxea. Lekeitio, 1902 ekaiñaren 9. Dantzari oso trebea, Arranegi kalean 13 jaio zan.

Pedro Seberiano Urkidi eta Gorostiola. Lekeitio, 1908 azaroa 27 jaioa, Bergara kalean, 12-2. **Iruñan Kaxarranka** dantzatu zuen batetan, **kaxa** gaiñetik **jausi** omen zan, baiña ain arin igo zan barriri ezen, gaur egun bere iruñatarrak ez baitakite jaustea dantzaren zati bat dan ala ez.

Eusebio Akordarrementeria eta Gabiola. Lekeitio, 1913 abendua 15 jaio Trinitate kalean, 1-2. eta 2006 maietzan 29 il zan. 1929 urtean dantzatu zuen 16 urte zituela. Au da **Lekeitioko Foru Enparantzan dantzatu leena.**

Pedro Murelaga eta Etxebarria. Lekeitio, 1922 jaioa San Pedro bezperan, Bergara kalean, 8an eta 2004 San Pedro bezperan bere il zan. Bere osaba zan Ignacio Murelaga Anakabe.



Aldaketa 2003 garren urtean Pedro Murelaga Aretxaga eta Asier Uskola Ibarra.

Vicente Bakeriza eta Azkarraga. Lekeition, 1925ko abenduaren 4an jaio zan Ezpeleta 29-3. 1967ko maiatzaren, 16an il, Eusebio Azkarraga eta Erkiaga bere aitxitxe zan.

Jose Maria Bakeriza eta Azkarraga. Lekeition, 1931ko irailaren 1ean jaioa, Bergara kalean 7-2. eta 1996 abuztuan 9 il zan. Vicenteren anaia zan.

Juan Manuel de Elorza eta Irigoras. 1943ko uztaillaren 24an, **Ermuan** jaioa. Au izan zan **AMALUR filmerako** San Pedro irudituz Kaxarrankan dantzatu zuena.

Pedro Murelaga eta Aretxaga. Lekeition, 1950ko San Pedro besperan jaioa Azpiri kalean, 5-4. Urte askotan dantzatu eban eta itxi baiño leen irakatsi eutson Asier Uskolari, dantza egiten. Pedro Murelaga eta Etxebarria bere aita zan.

Asier Uskola eta Ibarra. Lekeition, 1985 abenduaren 9, Eguzki Begira, 58an. jaioa. 2003tik asita, orainarte, berak **dantzatu egiten dau urtero.**

TXISTULARIAK

Bi senitarte bereiz daitezke: Txanbolintarrak, Fakundo Etxebarria Idoiagak, Pedro Murelaga Etxebarria eta Pedro Murelaga Aretxagak osaturik eta Azkarragatarrak, Eusebio Maria Azkarraga, Vicente Baqueriza Azkarraga eta Jose Maria Baqueriza Azkarragak osaturik, Santiago Zapirain Abaskal, Luis Kalle Eroa eta abar...

Mikel Arrieta Azkarraga eta Urtzi Iriondo txistulariak.

Agustin Arrien Díaz

KAIXAri buruz zenbait zeaztasun.

Gaur egun erabiltzen dan kaixak auxe dakar barnean:

Franzizko de Etxanizek egin eban, Juan Bautista de Anakabe-ren agintari orde zala ("Lo hiso Francisco de Echaniz siendo Mayordomo Juan Baustista de Anacabe. Año 1797"). Beraz, badakigu ze urtekoa dan.

Neurriak: 161 zm. luzeran, 52 zabaleran eta goitik-bera 107 zm.

